# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 176

*EBAZPENA, 2021eko abenduaren 22koa, Industria Administrazioko Arabako lurralde-ordezkariarena, zeinaren bitartez zehaztutako finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia egiten baita. Aipatutako finkak instalazio honen eraginpean daude: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko aireko linea, «Oion-Casablanca» 13,2 kV-ko aireko linearen 103. euskarria eta «Laguardia-Bilar» 13,2 kV-ko aireko linearen 560. euskarria lotzeko, Lantziegoko udalerrian (Araba).*

Espedientea: 01-AT-Y-2020-00040.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko orduko Arabako lurralde-ordezkariaren 2021eko martxoaren 5eko Ebazpenaren bidez, aldez aurreko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena eman ziren, eta aipatutako instalazio elektrikoa onura publikokoa zela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz, onura publikoaren deklarazioak berekin dakar ondasunak okupatu beharra edo eraginpeko eskubideak eskuratu beharra, eta okupazioa presaz egin beharko da, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluaren ondorioetarako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betez, Industria Administrazioko Arabako lurralde-ordezkariak erabaki du ebazpen honen eranskinean agertzen diren eraginpeko ondasun eta eskubideen titularrei eta jabeei dei egitea, Lantziegoko udaletxean biltzeko (han baitaude eraginpeko ondasunak), 52. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorriz, eraginpeko ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko.

Interesdun guztiak, bai eta eragindako ondasunen gaineko edozein motatako eskubide edo interesen titularrak diren pertsonak ere, pertsonalki edo behar bezala baimendutako pertsona batek ordezkatuta bertaratu beharko dira, eta titulartasuna egiaztatzen duten dokumentuak (eskriturak, Jabetza Erregistroko informazio-oharrak edo beste batzuk) eta kontribuzioaren azken ordainagiria aurkeztu beharko dituzte, finkako errentariarekin batera (halakorik balego), eta, egokitzat jotzen badute, peritu edo notario batekin ere joanda.

Aktak 2022ko otsailaren 15ean eta 16an egingo dira, 09:00etatik aurrera, Lantziegoko udaletxean. Titular bakoitzari zitazio-zedula bat bidaliko zaio, eta hor zehaztuko dira lekua, eguna eta ordua. Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako gainerako argitalpenak ere egingo dira.

Desjabetze-espedientean, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U. enpresak onuradun izaera hartuko du.

Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, argitaratutako zerrendetan agian agertzen ez diren eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek eta interesdunek egoki ikusten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eraginpeko ondasunen eta eskubideen zerrendetako balizko akatsak zuzentzearren. Alegazio horiek idatziz aurkeztu beharko dira Industria Administrazioko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, 01008 Vitoria-Gasteiz), eta hori egiteko epea aurreko aktak egiteko egunean amaituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 22a.

Industria Administrazioko Arabako lurralde-ordezkaria,
JESÚS PASCUAL LORENTE.

## ERANSKINA

| Finka | Poligono zk. | Partzela zk. | Udalerria | Titularra Izena | Eguna | Ordua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 6 | 662 | Lantziego | Mario Miguel Blanco Martínez de Osaba | 2022/02/15 | 09:00 |
| 121 | 5 | 3103 | Lantziego | Mario Miguel Blanco Martínez de Osaba | | |
| 36 | 6 | 717 | Lantziego | M. Mar Blanco Martínez de Osaba | 2022/02/15 | 09:30 |
| 41 | 6 | 434 | Lantziego | Jesús Blanco Martinez de Osaba | 2022/02/15 | 09:45 |
| 5 | 6 | 657 | Lantziego | Jesús Francisco Miranda Arana | 2022/02/15 | 10:00 |
| 9 | 6 | 654 | Lantziego | Jesús Ugarte Aguirre | 2022/02/15 | 10:15 |
| 25 | 6 | 502 | Lantziego | Josu Blanco Rodiguez | 2022/02/15 | 10:30 |
| 113 | 5 | 1612 | Lantziego | M. Azucena Eguiaz Aritimuño | 2022/02/15 | 10:45 |
| 40 | 6 | 435 | Lantziego | M. Luz Querejazu Mues | 2022/02/15 | 11:00 |
| | | | | Blanca Rodriguez Querejazu | | |
| 79 | 5 | 2040 | Lantziego | M. Luz Querejazu Mues | | |
| | | | | Blanca Rodriguez Querejazu | | |
| 46 | 6 | 393 | Lantziego | David Calleja Heredia | 2022/02/15 | 11:30 |
| | | | | Esteban Calleja Heredia | | |
| 47 | 6 | 395 | Lantziego | David Calleja Heredia | | |
| | | | | Esteban Calleja Heredia | | |
| 51 | 6 | 56 | Lantziego | Esteban Calleja Heredia | 2022/02/15 | 12:00 |
| 52 | 6 | 57 | Lantziego | Javier Copañon Calleja | 2022/02/15 | 12:15 |
| 58 | 5 | 2229 | Lantziego | Juan Luis Medrano González | 2022/02/15 | 12:30 |
| | | | | M. Pilar Miguel Muñoz | | |
| 64 | 5 | 2242 | Lantziego | Eugenio Ruiz Martínez | 2022/02/15 | 12:50 |
| 129 | 5 | 1472 | Lantziego | M. Soledad Reinares Aguirre | 2022/02/15 | 13:05 |
| | | | | J. Manuel Reinares Díaz de Greñu | | |
| | | | | M. Sofia Reinares Díaz de Greñu | | |
| 126 | 5 | 1493 | Lantziego | M. Rosario Urarte Gómez | 2022/02/15 | 13:25 |
| 35 | 6 | 716 | Lantziego | Lantziegoko Udala | 2022/02/15 | 13:45 |
| 70 | 5 | 2118 | Lantziego | Compañía de Vinos Telmo Rodríguez, S.L. | 2022/02/16 | 09:00 |
| 106 | 5 | 1658 | Lantziego | Compañía de Vinos Telmo Rodríguez, S.L. | | |
| 107 | 5 | 3088 | Lantziego | Compañía de Vinos Telmo Rodríguez, S.L. | | |
| 108 | 5 | 1657 | Lantziego | Compañía de Vinos Telmo Rodríguez, S.L. | | |
| 109 | 5 | 3155 | Lantziego | Compañía de Vinos Telmo Rodríguez ,S.L. | | |
| 75 | 5 | 1992 | Lantziego | Ángel Gonzalez Arana | 2022/02/16 | 09:45 |
| 76 | 5 | 2102 | Lantziego | Carlos Ansotegui Estecha | 2022/02/16 | 10:00 |
| | | | | M. Teresa Ansotegui Estecha | | |
| 38 | 6 | 438 | Lantziego | M. Blanca Mauleón Amestoy | 2022/02/16 | 10:20 |
| 81 | 5 | 2005 | Lantziego | Carlos Mauleón Querejazu | 2022/02/16 | 10:35 |
| 82 | 5 | 2006 | Lantziego | Carlos Mauleón Querejazu | | |
| 84 | 5 | 1964 | Lantziego | Rodrigo Martinez de San Vicente | 2022/02/16 | 11:00 |
| 85 | 5 | 1962 | Lantziego | Rodrigo Martinez de San Vicente | | |
| 88 | 5 | 1958 | Lantziego | Rodrigo Martinez de San Vicente | | |
| 86 | 5 | 1959 | Lantziego | Mario Pablo Martinez de San Vicente Ibañez | 2022/02/16 | 11:30 |
| 87 | 5 | 1961 | Lantziego | Mario Pablo Martinez de San Vicente Ibañez | | |
| 131 | 5 | 1369 | Lantziego | Juan Amestoy Mauleón | 2022/02/16 | 12:00 |

| Finka | Poligono zk. | Partzela zk. | Udalerria | Titularra | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Izena | Eguna | Ordua |
| 89 | 5 | 1954 | Lantziego | M. Pilar Marteles Ripa<br>Miguel Ángel Saénz de la Cuesta Rodríguez | 2022/02/16 | 12:15 |
| 90 | 5 | 1952 | Lantziego | M. Pilar Marteles Ripa<br>Miguel Ángel Saénz de la Cuesta Rodríguez | | |
| 91 | 5 | 1949 | Lantziego | M. Pilar Marteles Ripa<br>Miguel Ángel Saénz de la Cuesta Rodríguez | | |
| 92 | 5 | 1948 | Lantziego | M. Pilar Marteles Ripa<br>Miguel Ángel Saénz de la Cuesta Rodríguez | | |
| 97 | 5 | 1926 | Lantziego | Concepción Rodríguez Roitegui | 2022/02/16 | 12:45 |
| 112 | 5 | 1613 | Lantziego | Emilio Pérez de Azpillaga Querejazu | 2022/02/16 | 13:00 |
| 119 | 5 | 1601 | Lantziego | Hortensia Zabala González<br>Juan José Mendieta Zabala | 2022/02/16 | 13:15 |
| 93 | 5 | 1943 | Lantziego | Felicidad Hidalgo Martínez | 2022/02/16 | 13:35 |